

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Euskara arloan 2020 dirulaguntzak emateko deialdia

BDNS (identifikatzailea): 499241

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Onuradun izan daitezke dirulaguntza ematea arrazoitzen duen egoeraren batean dauden pertsona fisikoak eta juridikoak, edo oinarri arautzaile arauetan aurreikusten diren egoeretan daudenak.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen helburua da ondorengo proiektu eta jardura hauek finantzatzea, bai eta zenbait xede eta irizpide ezartzea ere herritarrei eta entitateei berdintasun, gardentasun, norgehiagoka, objektibitate, emakume eta gizonen berdintasun eta bereizkeriarik eza printzipioak bermatzeko, udal jarduna osatze aldera:

Euskara arloan:

1. Euskara ikasteko bekak.
2. Herriaz gaindiko proiektuak finantzatzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Korporazioko udalbatzak 2020ko martxoaren 3an onetsitakoak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Euskara arloan:

- Bekak: 2.000 euro.
- Herriaz gaindiko proiektuak (euskararen aldeko dirulaguntzak): 2.000 euro.

Dirulaguntzak borondatezkoak dira, eta aldez aurretik jaso izanak ez du berriro jasotzeko eskubiderik sortzen.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaera, eredu ofizialaren arabera egina (I. eranskina) eta udaleko alkateari zuzenduta, udaleko sarrera erregistroan aurkeztu behar da edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 16. artikuluan jasotako bideetako batetik, hogeita hamar eguneko epean, deialdiaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; eskaerarekin batera, deialdian adierazitako agiriak aurkeztu behar dira:

Seigarrena. Beste datu batzuk

Bai eskabidea, bai deialdia honako webgune honetan daude eskuragarri: <http://www.campezo.eus/ayuntamiento/subvenciones//eu> (izapideak/aurrez aurreko izapideak/dirulaguntzak)

Santikurutze Kanpezu, 2020ko martxoaren 9a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO